


ikertzen

MONDRAGON
UNIBERTSITATEAREN
IKERKUNTZA
GEHIGARRIA


Mondragon
Unibertsitatea

2022KO NEGUA
13.ZENBAKIA



Ikerketa arloan erreferente

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK AZKEN URTEETAN GORAKADA NABARMENA IZAN U IKERKETA JARDUNEAN, ETA TOKIOKO ZEIN NAZIOARTEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOEN GARAPENAREN ONDORIOZ ERREFERENTZIA BEZALA POSIZIONATZEA LORTU DU. MODU HONETAN, GAUR EGUN IKERBASQUE IKERTZAILEEN ORDEZKARITZA PROPIOA DAGO BERTAN, INGENIARITZAKO HAINBAT ARLOTAN PROIEKTUAK AURRERA ERAMATEN.

Ikerbasque Research Fellows, Associates eta Professors Eusko Jaurlaritzaren Zientziarako Euskal Fundazioak bultzatutako programak dira, eta ikerketa zientifikoa indartzea dute helburu, ikertzaile sarearen erakartze eta egonkortzearen bitartez, Zientziaren Euskal Sareko unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan ikerketa-proiektuak garatzeko. Gaur egun ikerketa arloko 290 profesional daude programa honen barne, hiru kategoriatan banatuta (Research Professor, Research Associates eta Research Fellows). Profesional horietako bostek Goi Eskola Politeknikoan ari dira beraien ikerketa proiektuak garatzen, eta ingeniartzaren hainbat arlo lantzen dituzte, Europa mailan estrategikotzat hartzen diren proiektuak gauzatuz.

Alor ezberdinetan ikertzen

Valentina Shevtsova Ikerbasque Research Professor da mikrograbitatoen fluidoaren portaeraren arloan, eta Research Professor maila duen Goi Eskola Politeknikoaren ikertzaile bakarra da. Kategoria hori ikertzaile seniorrentzat erreserbatuta dago, esperientzia handia eta lidergo-gaitasun handia baitute. Fisikan eta Matematikan doktorea da Moscow University of Physics and Technology-n, eta Europako, Japoniako, Errusiako eta Txinako Espazio Agentziarako lan egin du.

Valentina Shevtsova mikrograbitatoen lerroaren arduraduna da, eta mikrograbitatoen fluidoaren zientziari buruzko esperimendu berrien garapenean lan egin du, ESA, JAXA, CNSA eta antzekoekin elkar-

lanean hegaldi parabolikoak egin eta Nazioarteko Espazio Estazioak eskaintzen dituen aukerak baliatuz. Testuinguru horretan, sistema bifasikoetan dauden ezegonkortasun hidrotermalak aztertzen dira likido-gas interfazarekin, Widom lerrotik gertu dagoen CO₂aren portaera arraroa interpretatu eta bitartekari librean erabiliz ematen diren bero zein masaren transferentzien jarraikortasuna egin.

Markel Peñalbak, Borja Ericcek, Joxe I. Aizpurua eta Joan Manuel F. Mendozakosatzen dute Ikerbasque ikertzaileen ordezkariak Goi Eskola Politeknikoan. Etorkizun handiko karrera zientifikoa eta nazioarteko esperientzia duten ikertzaile gazteak dira, eta Ikerbasque bost urteko kontratua eskaintzen die beraien ibilbide profesionala Euskadin garatzeko.

Markel Peñalba itsas energia berriztagarrietan espezializaturako fluidoaren ikerketa mekanikoko taldeko ingeniaria da. Maynootheko Unibertsitatean doktorea da, eta COER-Maynooth Universityn (Irlanda), Tecnalian (Espainia), ENSTA Bretagnen (Frantzia) edo TU Clausthalen (Alemania) ikerketa-esperientzia du. Bere Ikerbasque proiektuaren ardatza offshore teknologia garatzea da, itsasoko energia baliabidea aprobetxatu ahal izateko. Hiru oinarri nagusi ditu honek: itsas baliabidearen eta haren epe luzerako joeren azterketa, energia-kaptadoreen diseinua (olatu energia eta eoliko flotatzailerak, batez ere) eta offshore inguru-ineetan hidrogenoa sortzea.


Borja Eric Mondragon Uni-

bertsitateko Materialen Konformazio Prozesu Aurreratuaren ikerketa-taldeko kidea da. Material ingeniartzan doktorea da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan, eta ibilbide luzea egin du nazioartean doktoretza ondorengo ikertzaile gisa École Polytechniquen (Frantzia), ETH Zurichen (Suitza) eta Oxfordeko Unibertsitatean (RU), eta ikertzaile iraunkor gisa NTNUn (Norvegia). Gaur egun, Ikerbasque Research Fellow bezala, materialen propietate mekanikoei oso denbora-tarte laburrean muturreko karga baldintzak ezartzen zaizkie-nean gertatzen diren aldaketak ikertzen ditu, baita hauek eragiten dituzten mekanismoak. Fabrikazio-prozesu, istripu edo leherketa askotan gertatzen diren egoerak dira, non deformazio-abiadurak edo materialaren tenperaturak oso azkar aldaketa handiak izaten dituzten. Fabrikazio-prozesuen eraginkortasuna handitzeko eta azpiegituren garraioan edo segurtasun fisikoan segurtasun pasiboa hobetzeko, esperimentalki baliozkotutako materialen eredu konputazionalak garatzen ditu, hausturaren aurrean erantzun mekanikoa eta portaera aurreikusteko gai direnak.

Joxe Aizpurua Seinalearen eta Komunikazioen Teoriaren taldekoa da. Mondragon unibertsitatean burutu zuen bere doktoregoa, fidagarritasunaren ingeniartzan, CAF Power & Automationekin lankidetzan. Joxek 4 urteko post-doc bat egin zuen Strathclydeko Unibertsitateko (Glasgow, Eskozia) Energia eta Ingurumen Institu-



IKERKETA
Eskola Politeknikoa ikerketaren abangoardian kokatzen da Ikerbasqueri esker.



Talentua erakarri

Ikerbasque ikertzaileak bat datoz Ikerbasque deialdiak Euskal Autonomia Erkidegoaren ikerkuntza-gaitasuna hobetzeko tresna baliagarri gisa adieraztean; izan ere, beraien lana 5 urteko egonkortasunarekin egiteko aukera eskaintzen die, tokiko enpresen premiekin eta joera globalekin bat etortzeko aukera emanez. Ikerbasqueren helburu nagusia ikerketa-talde berri bat sortzea da, Euskadin espezializazio eremu bakoitzean ezagutza indartzeko eta, horrela, eskuratutako ezagutza gizartera eta tokiko industriara itzultzeko. Horretarako, Ikerbasque ikertzaileentzat ezinbestekoa da nazioartean harreman sare indartsua izatea, horri esker Europa mailako proiektu estrategiko berrietan parte hartzeko aukera irekitzen baita.

Ikerbasque Fundazioak urtero 20 Research Fellows beka eta 10 Professor Fellows banatzen ditu, horretarako irizpide nagusia bakoitzaren CVa izanik. Horrez gain, hautagai bakoitzaren kontaktua sareara era kontuan izaten den faktore bat da, bereziki nazioarteko kontaktuei erreparatuz.

Goi Eskola Politeknikoak, gaur egun, Ikerbasque programaren barruan ikerketako bost profesional ditu, unibertsitateari balio bereizgarri bat gehituz, bertan aurrera eramaten diren ikerketa eta transferentzia jardueretik osopea areagotuz. Zentzu honetan, unibertsitateak egin duen azken urteetako balorazioa oso positiboa izan da, eta, beraz, ez da baztertzen laster ordezkartza hori handitzea.

tuan, eta Erresuma Batuko eta Kanadako hainbat enpresarekin kolaboratu zuen, energia-osagaiak monitorizatzeko, diagnostikatzeko eta iragartzeko soluzioak garatzeko, hala nola transformadoreak, kableak eta etengailuak. Joxek Hullen (Ingalaterra) eta Shanghain (Txina) egin ditu nazioarteko ikerketa egonaldiak, eta energia-sistemak monitorizatzen ere lan egin du, mantentze-estrategiak eta optimizazioan zentratuz. 2020ko irailaz geroztik, Ikerbasque proiektua garatzen ari da Goi Eskola Politeknikoan, osagai elektrikoetarako monitorizazio-ereduak diseinatuz, inplementatuz eta hedatuz, horretarako eredu fisikoak eta adimen artifiziala erabiliz.

Azkenik, Joan Manuel F. Mendoza dugu, Ekonomia Zirkularreko eta Jasangarritasun Industrialeko taldeko ikertzailea. Bere ikerketan materialen, produktuen, industria-prozesuen eta teknologia berrien ingurumen-inpaktua kuantifikatzeko tresna analitikoak garatzen eta aplikatzen ari da, baliabide naturalen erabilera eraginkortasuna hobetuko duten berrikuntza

iraunkorrak ezartzeko. Ingurumen Zientzia eta Teknologietan doktorea da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta ondoren lau urteko post-doc bat egin zuen Manchesterreko Unibertsitateko Industria Sistema Iraunkorren Taldean (Erresuma Batuan). Danimarkako Aalborg Unibertsitateko Ingurumen Ikasketen Zentroan ere ikerketa-egonaldia egin zuen, eta doktoretza egin aurretik, Tecnalian aritu zen ikertzaile junior gisa, Energia eta Ingurumen Arloan.

ANITZA
Ikerketa
Konfiabilitatearen
ingeniaritzaren
hainbat arlotan
egiten da.

Programak Mondragon
Unibertsitateko ikerketa-
talde gazteen talentua
aitortzen du.

Mekanizazio laborategiari aplikatutako biki digitala

OPTITWIN PROIEKTUA FABRIKAZIO DIGITALAREN ESPARRUAN KOKATZEN DA, ETA MEKANIZAZIOKO BIKI DIGITALA OPTIMIZATZERA BIDERATUTAKO DATUETAN OINARRITUTAKO EREDUAK GARATzea IZAN DU HELBURU. MEKANIZAZIOAREN ARLOAN DIGITALIZAZIOAK DITUEN AUKERAK AZTERTZEKO.

OptiTwin proiektuak lau ikerketa-talde batzen ditu: (i) Errendimendu handiko mekanizazioa, (ii) Software eta sistemen ingeniari-tza, (iii) Adimen artifiziala (iv) Makinak eta automatikoak. Goi Eskola Politeknikoko talde horiek guzti-ke parte hartu dute industria-inguru-nean *machine learning* ereduak ezartzeko proiektuan, eta, horretarako, garapen berri bat integratu dute sarera konektatutako zenbakizko kontrola duen mekanizazio-makina batean. OptiTwin proiektua mekanizazio-ko laborategi digitalizatua garatzeko zereginen barruan kokatzen da, eta mekanizazio-zentro batean mekanizazio-prozesuari buruzko datu errealak eskuratzeko aukera emango du, ondoren hobetu ahal izateko. Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte hartzen du proiektuan.

Prozesu egituratu bat

OptiTwin bost fasetan egituratu den proiektua da:

1- Azterketa-kasua zehaztu (analisi baten ondoren zulaketa dela zehaztu da).

2- Prozesuaren jarraipena denbora errealean egiteko aukera ematen duen plataforma digitala eta a garatzea.

3- Seinaleak jasotzera bideratutako azterketa kasuaren mekanizazio saiakuntzak.



4- Biki Digitala optimizatza bideratutako KPIak erazteko ereduaren definizioa eta garapena. Kasu horretan, zulaketa-prozesuan erabilitako barautsaren higadura modelatzen da (DDMak erabiliz).

5- Erabilitako barautsaren higadura bistaritzen den plataforma digitalerako erakuslea garatzea, mantentze-lan egokiak eginez eta kalteen edo matxuren arriskuak murriztuz.

Garapen guztia Fagor Automationen CNC-an integratu da, eta zenbakizko kontrol bera instalatuta duen beste edozein makintan erreplika daiteke. Gainera, proiektuaren bideragarritasunari begira, funtsezko zeregina izan du Mondragon Unibertsitateko errendimendu handiko mekanizazio-ko laborategiak. Laborategi horrek fabrikazio-ekipo monitorizatu batzuk ditu, eta, horri esker,

kalitate-datuak jaso eta hobekuntzak eta berrikuntzak proposatzen dizkio enpresa kolaboratzaileei.

TALDEAK
Industria-ingurunean *machine learning* ereduak ezartzera bideratutako proiektuan lagundu dute.

OptiTwin proiektuak lau ikerketa-talde batzen ditu: Errendimendu handiko mekanizazioa, Software eta sistemen ingeniari-tza, Adimen artifiziala eta Makinak eta automatikoak.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

Robtrusion: industria berrasmatzen

POLIMERO ETA KONPOSITEEN IKERKETA TALDEAK NEGOZIO LERRO BERRI BAT AZTERTU DU IRURENA GROUP ENPRESAREKIN BATERA. EGINDAKO LANEI ESKER, ROBTRUSION STARTUPA SORTU DA, MOLDETIK KANPO ONDU ULTRAMOREDUN PULTRUSIOAN ESPEZIALIZATUKO ENPRESA BERRIA.



Goi Eskola Politeknikoak Iurena Group berniz eta pintura enpresarekin elkarlanean dihardu hamarkada bat baino gehiagoz, batez ere Polimero eta Konpositeen Ikerketa Taldearen bitartez. Iurena Groupek esperientzia handia du zurarentzako estalduren ontze ultramorean, eta Goi Eskola Politeknikoarekin izandako lankidetzari esker, bere jarduera dibertsifikatzea lortu du, moldez kanpoko pultrusio ultramorearen bidez. Teknika berri honek beirantzuzteko konpositeen fabrikazioa berrasmatzea ahalbidetzen du, fabrikazio-denborak laburtuz eta prozesuaren produktibitatea zein malgutasuna areagotuz. Goi Eskola Politeknikoako Ikerketa Taldeak arlo honetan egindako lana talentuaren sustapenean (4 doktore-tesi), dibulgazio zientifikoa (7 artikulua argitaratu eta 16 komunikazio bako gehiago kongresuetan) eta industriarako transferentzian (Estatuko 7 proiektu baino gehiago eta Euro-


pako bi proiektu, besteak beste) zentratzen da.

Ikerketatik startupera

Unibertsitatearen eta enpresaren artean egindako elkarlanetik abiatuta, teknologiak negozio-lerro berri bat bilakatzeko ahalmena zuela ikusi zen, eta startup berria sortzeko prozesuari ekin zaio: Robtrusion. Robtrusion bost profesionalak eta bi doktoregaik osatutako startup bat da, eta gaur egun prozesuaren eta fabrikatutako osagaien ziurtapenean murgilduta dago, eta aldi berean, aktiboki jarraitzen du merkatu-azterketarekin. Orainartelortutako emaitzek azpimarratzen dute ontzigtza dela teknologia berritzaile honetarako egokiena, itsasontzietan forma ematen dieten profil kurbatuak fabrikatzeko eskaintzen dituen aukera zabalengatik. Industriarako lehen ekoizpen lerroa unibertsitateko konpositeen laborategian instalatu da, eta hainbat aplikaziotarako piezen ekoizpena hasi dute bertan.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

Energia sektorean sakontzen



GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO ENERGIA ELEKTRIKOAREN IKERKETA TALDEAK EUROPAKO PROIEKTU GARRANTZITSUETAN LAN EGITEN DU. ENERGIAREN SEKTOREA FUNTSEZKOA DA EUSKADIREN ETA EUROPAREN ETORKIZUNERAKO, ETA UNIBERTSITATEA NORABIDE HORRETAN ARI DA LANEAN, HAINBAT ARLO ETA APLIKAZIO BARNE HARTUTA.

Energiaren sektorearen bilakaera erronka etengabea eta estrategikoa da, Euskadin, zein Europan, eta Goi Eskola Politeknikoak gogor egiten dio aurre. Testuinguru horretan kokatzen dira Energia Elektroaren Ikerketa Taldeak gauzatutako proiektuak, besteak beste, Seabat, Liberty edo Istormy. Mondragon Unibertsitatea energia arloko ikerketan erreferentea da gaur egun, eta bertako irakasle eta ikertzaileek martxan dituzten proiektuei esker Europa mailako erakundeekin lankidetzara sarea ehuntzen ari dira.

Etorkizunera begirako proiektuak

Seabat proiektua egonkortuta dago gaur egun, eta dagoeneko bigarren General Assembly-a egiten du. Proiektuaren helburua itsasontzi guztiz elektriko baten kontzeptua garatzea da, energia eta potentzia handiko batera

modularren konbinazioan oinarrituta.

Bestalde, Liberty 2021ean jarri zen martxan, eta ibilgailu bati 500 km-ko autonomia emango dion batera bat garatzen da bertan. Karga-sistema ultra-azkarra izango du batera honek, eta erre-kuntzan oinarritutako ohiko ibilgailuen antzeko bizitza erabilgarria izan nahi du.

Azkenik, iSTORMY proiektuan biltegitratze-sistema modular bat garatu nahi da, biltegitratze-sistema mota desberdinak uztartzeko gai izango dena, hauen bizitza erabilgarria zabaldu eta, aldi berean, sare elektrikoari euskarria emateko maiztasuna erregulatzeko zerbitzuetatik abiatuta.

Goi Eskola Politeknikoak martxan dituen hiru proiektu hauek trantsizio energetikoa sustatzera bideratuta daude, gizarte jasangarriago baten aldeko apustua berretsiz.

Adeptness ikerketa proiektua bidea egiten

APLIKAZIO EZBERDINEN EGUNERATZEAK OPTIMIZATZEKO HELBURUA DUEN PROIEKTUAREN LIDERGOA DARAMA GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK. BI URTEREN BURUAN, PROIEKTUAK ZATI ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA BUKATUTZAT EMAN DU, ORAIN BALIDAZIO FASERA SALTO EGINEZ.

Adeptness ikerketa sistemak garapen eta berifikazioaren automatizazioan sakontzen du, gailu elektronikoetan lan-fluxu simple eta automatizatuak txertatuz hauen eguneratzea diseinu edo erabilpen fasean egitea ahalbidetuz.

Helburu hauek bete ahal izateko proiektua 8 *work package*-etan banatzen da, eta 2020an martxan jarri zenetik hauetako bost burutu dira jada, ikerketa, garapena eta finkatzeari dagozkienak. Hemendik aurrera, eta 2023ko martxora arte egindako ikerketa bi use case konkretuetan frogatu beharko da; igogailuen eta trenen sektoreetan alegia. Europa mailako proiektu honen gidaritza orokorra Mondragon Unibertsitatearen ardura da, eta Goi Eskola Politeknikoko zazpi pertsonen osatutako ikertzaile taldeak egindako lana igogailuen sektorera aplikatzen dihardu, Orona eta Ikerlanekin elkarlanean. Trenaren sektoreko *use case*-a ordea Bombardier, Malardalen University eta Easy Global Market erakundeen esku dago. Azkenik, Ulma Embedded Solutions eta Simula Research Laboratoryk proiektuaren estandarizazio eta esplotazioan



Adeptness ikerketak sistema garapen eta berifikazioaren automatizazioan sakontzen du.

ardurahandiaizatea aurreikusten da.

Erabilgarritasuna helburu

Proiektuaren ideia nagusia erabiltzaileak gailu elektroniko ezberdinen eguneratzeen albo kalterik ez pairatzea da. Zentzu honetan, Goi Eskola Politeknikoa Oronako igogailuetan lantzen ari den *use case* konkretuan software arkitektura berri bat txertatuko zaio igogailuari, honek datu zehatzak jaso eta cloud batera bidali ondoren, teknikariak jakin ahal izango du igogailu konkretu batek eguneratzerako baldintzak betetzen dituen ala ez. Gauzak

horrela, igogailuaren mantenu lanak hauek itxita edo hutsik daudenean egitea posible izango da, teknikari bat igogailu hori dagoen lokalizazio konkretura mugitu gabe. Modu honetan, igogailuak bere funtzionamendu egokirako une oro software bertsiorik berriena instalatuta duela bermatu ahal izango da, mantentze modu erremotoan eginez, eta mantentze kostuak jaiste lortuz. 2022ko apirilean aurreikusten da frogafasea hastea Oronako igogailuetan, 2023ko otsailera arte luzatuz.

EMAITZAK
Proiektuaren ideia nagusia erabiltzaileak gailu elektroniko ezberdinen eguneratzeen albo kalterik ez pairatzea da.

Oronako igogailuetan lantzen ari den use case konkretuan software arkitektura berri bat txertatuko zaio igogailuari.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

LowReeMotors, ibilgailu elektrikoaren motoreentzako alternatiba



MONDRAGON UNIBERTSITATEAK EIT RAW MATERIALS-EK FINANTZATUTAKO PROIEKTUA LIDERATZEN DU, KAVA CALL 6 - UPSCALING DEIALDIAREN BAITAN. IBILGAILUETAKO MOTOREETAN ERABILTZEN DIREN NEODIMO IMANEENTZAKO ALTERNATIBAK BILATZEN DITU.

LowReeMotors (Rare earth reduction in high performance permanent magnet electric machines) Mondragon Unibertsitateak lideratzen duen proiektu europar bat da, eta Cea, Valeo, Magneti Ljubljana, Montan University Leoben edo KU Leuven beza-

lako partner-ek osatzen dute talde eragilea.

2020ko otsailean Goi Eskola Politeknikoan abian jarri zenetik, Energia Elektrikoko ikerketa-taldea gaur egun ibilgailu elektrikoaren motorretan erabiltzen diren neodimiozko imanen konposizioan lanean ari da, eta fabrikazioan alternatibak bilatu nahi ditu. Une honetan lantzen ari garen aukeretako bat Zerrioren (Ce) edukia duten aleazioak dira, Nd lehengaiaren beharra % 6-10eraino arindu dezaketena, nahiz eta oraingoz Ce-n oinarritutako imanek Nd imanek baino errendimendu txikiagoa duten. Horregatik, aukera hori bideragarria izan dadin, makina elektrikoak berriro diseinatu behar da, iman

ALTERNATIVAS

Las tierras raras no son viables a largo plazo como fuente de suministro.

berri horien ezarpena optimizatu egungo teknologiek lehiakorra bilakatzeko. Horretarako, fabrikazio-teknika berritzaileak erabiliko dira, powder injection moulding (PIM) adibidez.

Lur eremu arrotzak ekidin

Neodimio-imana Europatik kanpo ekoizten da gehienbat, batez ere Txinan. Lur arrotzak bi motatan banatzen dira: lur bakan arina (LRE) eta lur bakan astuna (HRE). Munduko lur arrotzen erreserbak LREren %85 eta HREren %15 dira gutxi gorabehera, eta azken horiek erabiltzen dira automobilgintzan aplikatzeko. Hain urriak diren material horiek erabiltzea duen desabantaila nagusia ekoizpen-kostuandago, eta, gainera, eskariak epe laburrean hori gainditzea aurreikusten du.

Horri erantzunez jarri da martxan LowReeMotors, Europar Batasunaren finantzazioarekin EIT Raw Materials partzuergoaren barruan kokatzen dena, eta MONDRAGON Korporazioa bazkide gisa izan duena 2021ean. EIT Raw Materialsek Europar mineralen, metalen eta materialen sektorearen lehiakortasun iraunkorra bultzatzen du balio-katean zehar, berrikuntza, hezkuntza eta enpresa-espirtua sustatuz.

EIT Raw Materials-ek Europar mineralen, metalen eta materialen sektorearen lehiakortasun iraunkorra bultzatzen du.

MyDigiCoop, proiektu eraldatzailea

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAN FAKULTATEKO LANKI LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIA ETA KOLABORATEGIA MYDIGICOOP PROIEKTU EUROPEAREN LIDERRAK DIRA. ERASMUS+ PROGRAMAREN BARNE KOKATZEN DEN PROIEKTUAK GOI MAILAKO HEZIKETA SISTEMA ERALDATZEA DU HELBURU, IKASLEENGAN PROFIL EKINTZAILA ETA KOOPERATIBOAK SUSTATUZ. MYDIGICOOP-EN EUROPA MAILAKO HEZIKETA ZENTRO ETA ENPRESA EZBERDINEK HARTZEN DUTE PARTE.

MyDigiCoop (Personalised digital learning paths to foster social-cooperative entrepreneurship) Europar Batasunak Erasmus+ programaren baitan finantzatutako proiektua da, ikasleen ekintzailtza sozial kooperatiboa garatzeko ibilbide pertsonalizatuaz sustatzea bilatzen duena. *MyDigiCoop*-ek Europako beraien ikerketa lanagatik errekonozituak diren lau herrialde ezberdinetako hiru unibertsitate eta lan esperientzia luzeko hiru enpresa txiki eta ertain biltzen ditu.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateaz gain, *MyDigiCoop*-en talde eragilearen parte dira Finlandiako Haaga-Helia, Errumaniako Lucian Blaga University of Sibiu eta Valentziako Unibertsitateak dira, azken hau honi esleitutako Polibienestar erakundearen bitartez. Enpresa arloan Senior Europa Gestionet (Espainia) eta ACEEU (Alemania) daude.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea *MyDigiCoop*-en proiektu burua da, eta LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko eta

KoLaborategiko ikertzaileek elkarlanean kudeatzen dutelid ergo hori edo parte hartzen dute bertan. Ekintzailtza sozial-kooperatiboaren proiektu eta praktiken garapenean duten esperientzia zabala oinarri izanik, proiektuaren alderdi guztien garapen egokia bermatzeko ardura du. Horrez gain, Mondragon Unibertsitateak Valentziako Unibertsitatearekin batera proiektuak kooperatibagintzarekin duen loturalantzen du Haaga-Helia eta Lucian Blaga University of Sibiu ren eskugeratuz ekintzailtza. Unibertsitate partaideek proiektuaren arrakasta bermatzeko arlo teorikoa lantzen dihardute, bakoitzak bere ezagutza edo espezializazio atalera bideratuz indarrak. Proiektuaren osotasunera begira, Gestionet enpresaren esku geratu da proiektuaren plataformaren garapena, eta ACEEUak hartu du proiektuaren komunikazio eta zabalkundea.

Erakunde ezberdinen arteko lankidetzak asmo handiko helburuak ezartzen ditu Europa mailako profesionalak tresna eta



gaitasun berritzaileez hornitzeko eta ikasleen ekintzailtza sozial eta kooperatiboa trebetasunak sustatzeko. Egun guztiz aldakorren munduak gaur erronka eta egoera ezberdinei bermez aurre egiteko esparru ezberdinetako trebetasunak garatzea eskatzen du, eta hori da hain zuzen ere proiektu honek eskaini nahi duena.

Fase bitan antolatua

COVID-19 pandemia dela eta Europar Batasunak erakundearen eraldaketa digitalerako deialdi berezi bat argitaratu zuen, eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Fakultateak bertan aurkeztu zuen *MyDigiCoop* proiektua. Hasiera batean urtebeteko proiektua izan behar zena 24 hilabetekoa bilakatu da, eta bi ardatzen gainean dago egituratua. Lehenik eta behin unibertsitate edo goi mailako ikasleen ekintzailtza sozial

TALDEA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko KoLaborategia eta LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia ikertaldeak ari dira parte hartzen proiektuan.



kooperatiborako kompetentzia garatzea da helburua, eta horretarako kompetentzia hauek garatzea ahalbidetzen duen testuinguruak eskaini behar zaizkie. Hala, ikasle plataforma ezberdinen diseinua landuko da fase honetan, eta une honetan garapen fasean dagoen plataforma hori laster argitaratuko da. Bertan kompetentzia ekintzaile sozial kooperatiboa garatzeko formazioa eta trebakuntza eskainiko zaio ikasleari. Plataforma bitartez ikasleek modu autonomoan eta online trebakuntza jasotzeko aukera izango dute.

Lehen fase hau proiektuaren lehen urtean eramango da aurrera, eta bigarren urtea irakasleen formazioan zentratuko da. Unibertsitate mailako irakasleak ikasleei kompetentziak garatzeko espazioak eskaini eta ikasleak trebatzea da lortu nahi dena.

MyDigiCoop-ek
Europako ikerketa
lanagatik
errekonoizituak diren
lau herrialde
ezberdinetako hiru
unibertsitate eta lan
esperientzia luzeko
hiru enpresa txiki eta
ertain biltzen ditu.

ELKARLANA
Europa mailan
errekonozi-
mendua duten
erakunde
ezberdinak ari
dira *MyDigi-
Coop* garatzen.

Hezkuntza erakundeak berrantolatzeke unea

Teknologia aurreratuak eta digitalizazioak mundua irauli duen heinean, pertsonen aukerak optimizatzeke gaitasuna areagotzeke ezinbesteko bilakatzen da, bereziki horretarako baliabideen garapenarekin. Zentzu honetan Goi Mailako Hezkuntza Erakundeak ezagutzaren sortzaile eta hornitzaile soilakizatetik ikasleei, irakasleei eta haien langileei gaur egun aurrera egiteke beharrezkoak diren trebetasun eta gaitasun praktiko eguneratuak eskaintzen dizkieten laguntzaile izatera salto egiteke unea iritsi zaie.

Idea hori kontuan hartuta, *MyDigiCoop*-ek helburu nagusi bat ezartzen du Goi Mailako ekintzaile sozial kooperatiboa sustatzeko hauen sareko norbanakoei tresna eta gaitasun berritzaileez hornituz.

Helburu orokor honetara iristeko, *MyDigiCoop* proiektuak 5 helburu zehatz ditu:

- Goi Mailako Heziketako ikasleen profil ekintzaile eta kooperatiboa.

- Goi Mailako Heziketako ikasleentzako ikasketa-ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea, Goi Mailako hezitzaileei ikasleen kompetentzien garapenean laguntzeko helburuarekin.

- Plataforma birtual interaktibo bat sortzea kooperatiba soziala eta gizarte ekintzaile garatzen laguntzeko.

- Goi Mailako Heziketako irakasleei behar diren trebetasunak, gaitasunak eta materialak eskaintzea beren ikastaroetan ekintzaile kooperatiboa sustatzeko.

- Goi Mailako Heziketako erakundeen, sektore publikoko zein pribatuko enpresen eta elkarten arteko sinergiak eta lankidetzak indartzea, haien beharrek prestakuntza ikastaroan sartuz.

Proiektuaren 24 hilabeteak betetzerakoan garatuko den plataformak aktibo jarraitzea da asmoa, gutxienez 5 urtez. Horrez gain, aurrera begira proiektu honi lotutako bestelako ikerketa ildoak bilatzea aurreikusten da, Goi Mailaz harago Bigarren Hezkuntzara hedatuz ikerketa.



Pertsona erantzulea enpresa kooperatiboan

LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIA PERTSONA KOOPERATIBOAREN ERANTZUKIZUNA AZTERTZEN DUEN IKERKETA PROIEKTU BAT JARRI DU MARTXAN. PROIEKTUAK MONDRAGON TALDEKO KOOPERATIBAK DITU JOMUGA, ETA BERTAKO PERTSONA ERANTZULE BEZALA EGITURATZEKO TESTUINGURU EGOKIAK SUSTATZEA DU HELBURU.

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia "Pertsona erantzulea enpresa kooperatiboan: erakunde-faktoreen identifikazio eta garapena" ikerketa abiatu du. Egun MONDRAGON taldeko kooperatibek identifikatuta duten premia eta erronka garrantzitsua da pertsonen erantzukizunaren kultura indartzea. Izan ere, pertsonen partehartzea ezinbesteko osagaia da enpresa kooperatiboaren funtzionamendurako; besteak beste, enpresa erronkei erantzuteko edota demokrazia kooperatiboaren garapenerako.

Erantzukizuna bideratzeko moduak aztertzen

Baina nola elikatu daiteke pertsonen erantzukizuna? Orohar, kooperatibetan zailtasunak daude gaiari helteko LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak garatu duen hipotesiak zuzenean

eragiten duten erakunde-faktore batzuk daudela planteatzen du. Hori dela eta, errealitate honi egokituz, LANKIren ikerketa proiektuak bi helburu definitu ditu. Leheniketa behin, pertsonen erantzukizuna pentsamendu kooperatiboan nola ulertu den aztertzea bilatuko da. Bigarren, pertsonen erantzukizun kultura sustatzen duten erakunde-faktore nagusiak identifikatu eta ezaugarritzea izango da helburua.

Ikerketa honen bidez ikertegiak egitea soberan duen ekarpen nagusia erantzukizunaren kultura kooperatiboa elikatze gako nagusiak ezaugarritzea da; eta, norabide horretan, kooperatibak proiektu sozio-enpresarial gisa garatzea, etorkizunera begira hauen jasagarritasuna bermatu ahal izateko.

Hizkuntza zientifikoan sakonduz

ALPHA PROIEKTUAK IKASLEEK NATUR ZIENTZIEN ARLOKO ALFABETATZEA GARATZEA DU HELBURU. MATERIAL DIDAKTIKOEN AZTERKETA BAT EGINEZ KONPETENTZIA LINGUISTIKO ZIENTIFIKOAREN GARAPENEAN ERAGITEA BILATZEN DA BERTAN.


Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean Natur-Zientziaren arloko alfabetatzea sustatzeko baldintza erraztaile eta oztopatzaileak identifikatzeko proiektu batean ari dalanean duela urtebete. Espainiako Gobernuaren Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutako Alpha (Alorren alfabetatze espezifikoak Bigarren Hezkuntzan *deeper learning* delakoa sustatzeko) proiektuak Natur-Zientzien arloan ikasleengan identifikatutako gabeziabatierantzuten dio. Izan ere, PISAk argitaratutako txostenen emaitzen arabera, ikasle hauen kompetentzia baxuagoa da alor honetan, batez ere hizkuntza zientifikoa erabiltzeko uanean.

Autonomi Erkidego mailan lanean

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Ikastolen Elkarteko lau zentzorekin

batera ari da proiektua aurrera eramaten, Bizkaiko bi, eta Araba zein Gipuzkoako bana. Zentro hauetako ikasleak dira ikerketaren lagina, eta ikastoletan 2020-2021 ikasturtean egin zen datuen lehen jasoketa. Diagnostiko hau egiteko erabilitako lagina DBH 2. mailako ikasleek osatu zuten, eta paraleloki ikastoletako irakasleekin mintegiak egin dira, eskoletan erabilitako materiala aztertu eta definitzeko, honen hobekuntza aukerak identifikatzeko aldera. Hobekuntza hauetatik abiatuta material egokitu martxan jarriko da, alderdi erraztaileek ikasleen kompetentzien garapenean duten eragina baloratu ahalizateko.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko taldeari dagokionez, arlo ezberdinetako zazpi pertsona daude proiektuan lanean; hizkuntza didaktika, atzerriko hizkuntza eta eleaniztasuna eta natur-zientzia edo biologia ikertzaileak.



STEM bide berriak

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO ZITEO IKERTALDEAK (ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUNA) GIZARTEAN EMATEN ARI DIREN ALDAKETA AZKAR ETA KONPLEXUEI HEZKUNTZATIK ERANTZUNA EMATEA DU BERE ERRONKA NAGUSIEN ARTEAN.

STEM hezkuntza-ereduaren baitan pertsonen alfabetizazio zientifiko-teknologiko a garatzeko eta, oro har, ikasteko eta irakasteko, aukera berriak bistaritzen dira. Aukera horiek baliatzeko eta ikasleengan eragiteko irakasleak dira gakoak. Ildo horretan, ZiTeO-n dozentzia, transferentzia eta ikerketa elkarlotzen dituzte eta horren adibide dira Lehen Hezkuntzako Graduan eskaintzen ari diren Berrikuntza Digitala aipamena, ikastetxeekin egiten dituzten aholkularitza proiektuak edota jarraian zehazten diren ikerketa proiektuak:

Proiektu ezberdinak

ZiTeO ikertaldeak urteetan zehar ikerketaren bitartez garatutako jakintza dozentziara eta transferentziara aplikatu ditu proiektu ezberdinak martxan jarritz.

Lehena STEmotiv proiektua da, DBHko ikasleek STEM diziplinekiko duten interesa neurtu, bertan eragin eta genero arrakala gainditzea helburu dituenak. ZiTeO-k, Vicomtech-ek eta Ikaslan Gipuzkoak kudeatutako proiektua 2021. urtean martxan jarri zen, 5 ikastetxeekin elkarlanean arituz eta 1.013 ikasle protagonista izanik. Ikasleek STEM diziplinekiko duten interesa



ZiTeO-k, Vicomtech-ek eta Ikaslan Gipuzkoak kudeatutako proiektua 2021. urtean martxan jarri zen, 5 ikastetxeekin elkarlanean arituz eta 1.013 ikasle protagonista izanik.

galdetegien bitartez neurtu zen, STEM proiektuak gauzatu baino lehen eta ondoren, eta analisi estatistikoaren emaitzek argi utzi zuten ikasleek interesa areagotu egiten zela STEM proiektuak bizi ondoren, bereziki ikasle nesken kasuan. Proiektuaren arrakasta

ikusita, 2022an bigarren fase bat diseinatu da, kasu honetan irakasleek STEM profila osatzea berrikuntza-ildo gisa duena.

Bigarren proiektu bat ZTIM HUB dugu, MONDRAGONek, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Goi Eskola Politeknikoak 2020an martxan jarritakoa. Proiektu honek tokian tokiko sareak sustatu nahi ditu, bertako ikastetxe, gizarte eragile eta enpresen arteko elkarlanaren bidez STEM arloei bide emateko. Momentu honetan Debagoienan garatzen ari da eta Goierrira hedatzeko asmoa dago.

Azkenik, ZiTeO ikertaldean STEM arloaren osagarri diren beste bi ildo daude: jasangarritasunerako hezkuntza eta Lanbide Heziketako hezkuntza-berrikuntza. Horien baitan beste hainbat proiektu daude, Debagoienako Lanbide Heziketako hainbat ikastetxe eta kooperatiba eta enprekin batera garatzen ari den LanHezi proiektua edota Estatu Espainiar mailako *Aprendizaje basado en retos para una industria 4.0 abierta* proiektua.

TALDEAN ERAGIN

ZiTeO ikertaldeko Nerea López eta Patricia González.

Talentuaren kudeaketa, jasangarritasun eta bereizketaren bermea

ANTOLAKETA ETA NEGOZIO TESTUINGURUAK ETA PERTSONEN ITXAROPENAK ALDATZEN DABILTZA; HORREGATIK, PERTSONEN KUDEAKETA GARRANTZIA HANDIAGOA HARTZEN DABIL. TESTUINGURU HORRETAN, PERTSONETAN ETA TALENTUAN ESPEZIALIZATUTAKO I+G-KO TALDEAK HAINBAT TEMATIKA LANTZEN DIHARDU PERTSONEN ESPARRUAN, TALENTUAN, LIDERGOAN ETA IKASTE PROZESUAN, ENPRESEN LEHIAKORTASUN ETA IRAUNKORTASUNAREN BEREIZGARRI DIREN ELEMENTUETAN.

